

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko maiatzak 15 • 1141. zenbakia



**PAUSOZ PAUSO
NORMALTASUNERUNTZ**



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • www.clinicarecalde.com



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrigo Unibertsitate Konpluterbea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**#EzDaFutbolaLaLigaDa**

Europa sufritzen ari da koronabirusaren ondorioz. Gobernuek larrialdi-egoera deklaratu dute eta guztia gelditu egin da. Une honean, daukagun gauzarik preziatuena babestea lehentasun bihurtu da: osasun publikoa da guztion lehen helburua. Horregatik, uste dugu Europako futbolaren erabateko geldialdia beharrezkoa dela.

Hala ere, ezer gertatu izan ez balitz bezala, zenbait zirkulu usteletan, harmailetan zaletu gabeko partidak jokatzeko ideia zoroa dabil. Eta hori guztia zergatik? Zeinen izenean? Zilegi baino gehiago da pentsatzea interes ekonomikoak direla egoeraz jabetzen direnak eta, beste behin ere, diruaren nagusitasunak giza bizitzaren balioa zapaltzen duela.

Klubek milaka pertsona elkartzen dituen grina hori ulertu behar dute eta ez bakarrik negoziotako otsoak entzun. Gogoratu behar dute futbolaren inguruko pasio hori ez dela folklorea soilik, haren funtsa baizik. Ikusleak eta jarraitzaileak, definizioz, "herriaren-kirolaren" funtsezko faktoreak dira.

Beraz, UEFARI eta federazio nazionaleri eskatzen diegu geldialdiari eusteko eta futbol-lehiaketak geldiarazteko, estadioak berriro bete arte, osasun publikorako arriskurik sortu gabe.

Elkarrekin borrokatuko dugu berriz ere harmailetan egoteko, algarak eta tristurak partekatzeke, maite dugunagatik abesteko.

Zalerik gabeko futbolari ez! Gaur egungo futbolari ez! "Europako jarraitzaileen batasuna"

Eskozia La Brava, Nickchupsarmeros, Emango Nuke, Gazte Armagiñak, Mandiola Laguntaldea, Federación Internacional Peñas, Peña Bitter Madrid, Errasti Taldea, De Euskadi Kadi, Peña Heibar, Eibar-Gasteiz Elkartea eta Peña Alto Palancia Armera Eibar FT-ko peñak eta 450 kolektibo gehiago

"Baliatuko al dugu norabide aldaketa benetakorik egiteko? Ez dut uste, munduo buruzagiak boteretsuak,itsuak eta neurririk gabe ase ezinak direlako, eta agintari politikoak, haien morroi. Hala ere, azkenean, Covid-20, 21 eta 22 direlakoek berriro euren buruak gugana etortzera gonbidatzen dituztenean, amore eman beharko dugu. Begiak ixteak ez baitu errealitatea ezkatzen. Zaldibarko zabortegian gertatutakoa zetorrenaren iragarpen modukoa izan zen: alferrik ezkatzen aritu ginen zaborra gure gainera erori. Ez dago beste aukerarik: gutxiago kontsumitu eta produzitu behar, neurrian. Eta etekinak era justuan banatu, neurrian. Nahi ez arren, ikasiko dugu. Edo desagertu. Hau ere ez da aukera txarra. Neurrikoa"

JOSE IGNAZIO ANSORENA, txistularia

"Janzkeraren arabera neurtzen dugu profesionaltasuna, arrakasta, burujabetasuna, autoestimua... Janzten garena garela sinesten dugu. Esadazu nola jantzen zaren eta esango dizut nor zaren. Ere-mu bertualean jardun behar izatearen abantaila bat, abantaila askorik ez baldin badu ere, janzeraren morrontzatik askatuko gintuela zela uste nuen. Ez nuen nire burua pantaila aurrean piztuz jantzita irudikatzen, baina ezta trajez jantzita ere. Baina hara non gure bizitza bertualak hasi eta egun batzuetara mezu elektronikoz jakinarazi ziguten moralari eusteko beharrezkoa zela itxura profesionala ematea. Ez da nahikoa oztopoak oztopo geure lana egitea; dena ezin hobeto doan itxura eman behar dugu, hobeto lan egingo dugulakoan"

ESTIBALITZ EZKERRA, literatur kritikaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MURGIL. → Urpeko igaria. "Gure denboran, Ferruelek egitten eban murgillik luziena".
MURGIL / MURGILLIAN EGIN. → Ur azpian igerian egin. "Kunbuan murgil egitten genduan". "Igaraberiak letxe egitten eban murgillian".



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA
 ...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
 Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
 943 20 67 76 / 943 20 09 18
 603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
 erredakzioa@etakitto.eus
 komunikabideak@etakitto.eus
 publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
 elkarte@etakitto.eus
 normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
 Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
 Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
 eta Silbia Hernandez
ADMINISTRAZIOA
 Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
 Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
 Silbia Hernandez
DISEINUA
 Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
 ...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
 Malen Jainaga eta
 Malen Illaramendi
HIZKUNTZA ARDURA
 Juan Andres Argoitia eta
 Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
 Itziar Albizu eta Belen Ulazia
TELEFONOA
 943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
 Malen Jainaga
BANAKETA-ARDURA
 Idoia Labado

TIRADA
 7.450 ale
INPRIMATEGIA
 GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
 ...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
 SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





1



2

Orain dela urtebete horrelakoak ginen

Alejandro Cid Txiletik Arratera “ikasteko asmoz” etorri zen apaiz berriak eibartarrok Arrateko Amarekiko maitasuna nabarmendu zuen. Irabazi alderdi politikoak eta Besaia enpresak herritarrak naturarekin lotzea helburu zuen Mirabaso proiektua aurkeztu zuten, “Eibartik irten barik naturaz gozatzeko aukera eskainiz”. 27 enpresen artean Basque Precision Technology District (BPTD) enpresa-elkartea eratu zuten Armeria Eskolak hartu zuen ekitaldian “Eibar eta inguruko herriak berrindustrializatzeko asmoarekin”. Herriko La Salleko kideek zentroaren 300 urteak ospatu zuten, Isasiko eta Azitaingo ikastetxeetako ikasleekin Untzaga plazan egindako dantza bereziarekin. Su Ta Gar eta Gatibu taldeek kontzertu bikaina eskaini zuten Eibar Foball Taldearen denboraldiko amaieraren jaiaren barruan. Argazkilaritza Maiatzean-eko egitarauaren barruan argazki-topaketen txanda heldu zen, estudioko erretratuak tartean zirela.

Argazkiak: 1- Eibar FT-aren denboraldiko amaieraren jai. 2- BPTD enpresa-elkartearen eraketa ekitaldia. 3- Mirabaso proiektuaren aurkezpena. 4- Alejandro Cid apaiz berria Arraten. 5- La Salle ikastetxearen 300. urteurrena. 6- Estudioko erretratuak Argazkilaritza Maiatzean barruan.



3



4



5



6



Maskarak doan banatzeko bost makina ipiniko dituzte herrian

>>> Aurreko astean aurkeztu zuten udaletxeko arkupeetan maskarak banatzeko vending makina berria Udal ordezkariak eta Carlos Abad Urkotronik enpresako gerenteak. Azaldutakoaren arabera, "Covid-19ak eragin duen errealitate berrira egokitzea errazteko asmoz, datozen egunetan herritarren eskura jarriko dira maskara higieniko horiek, herriko hainbat tokitan egongo diren vending guneeetan. Maskarak eskuratzeko, etxeetara bidaliko duten gutunarekin batera

doan txartel elektronikoa erabili beharko da". Maskarak doan jasoko dira, baina txartel bakoitzak kopuru mugatu bat ateratzeko aukera emango du, lauko loteetan paketatuta. Maskarak jasotzeko makinak, berriz, Azitain eta Kantoi gasolindegietan, Fermín Calbeton kaleko eta Berdintasunaren pasealekuko vending guneeetan eta Orbea kiroldegian egongo dira. "Eskertuko genuke herritarrek maskara horiek erabiltzea", adierazi zuten.

Oraindik ez dute hartu igerilekuak zabaltzeari buruzko erabakirik

>>> Eibarko Kiroletako Udal Patronatuak jakinarazi duenez, oraindik ez dute behin betiko erabakirik hartu Ipuruako kanpoko igerilekuak zabaltzearen inguruan. Idatziz adierazi dutenez, "konfinamendua deseskalatzeko faseetan oinarrituta, baiezta dezakeguna da ez dela posible izango ekainaren 13an irekitzea. Hortik aurrera, datak eta organo eskudunek instalazio mota horiek irekitzeko ezartzen dituzten jarraibideak eta baldintzak aztertuko dira".



Alarma egoera hasi zenetik 337 zigor ezarri dituzte

>>> Aste honetako datuen arabera, alarma egoera ezarri zutenetik 8.789 lagun eta 2.139 automobil identifikatu ditu Udaltzaingoak Eibarren. Horrez gain, 337 zigor ezarri ditu martxoaren 17tik maiatzaren 11ra bitartean, etxean egoteko agindua edo segurtasun neurriak ez betetzeagatik.



FUNEUSKADI
Grupo Asistia

FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Gerritek
INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

**Marka guztietako
ZERBITZU TEKNIKOA
eta SALMENTA**

**Neurrira
egindako
software-aren
garapena**



Oraindik ezin da familia edo lagun arteko festarik egin

>>> Estefania Beltran de Heredia Segurtasuneko sailburuak ohartarazi duenez, EAeko deseskaladaren 1. fasean ezin da familia- edo lagun-festarik egin etxeetan, eta ezin da txoko, elkarte edo gazteen lonjetara joan, oraindik ere gizartearen urruntzeari eutsi behar zaiolako ez kutsatzeko. Beltran de Herediak “erantzukizun indibidual eta kolektiboa” eskatu eta mugikortasuna ahalik eta gehien murriztu behar dela ohartarazi du. Azaldu duenez, etxeetan talde txikiekin kontaktu soziala egon daiteke eta udalerrri barruko senideak bisitatu daitezke, edo beste batera igaro, adineko, mendeko edo arriskuko pertsonak artatzeko bada, baina oraindik ezin da festarik egin etxeetan, ezta txokoetan edo elkarteetan bilerarik egin ere. 10 lagunetik gorako bilerak ere ez daude baimenduta kalean.

Zaldibarren amiltzea Europaraino

>>> Zaldibarko amiltzean zer gertatu zen ikertuko du Europako Batzordeak ere. PPKo eta Ciudadanoseko eurodiputatuek egindako galderei erantzunez, Virginijus Sinkevicius Ingurumen komisarioak adierazi du agintari eta epaitegi “nazio-

nal edo erregionalen” ardura dela zabortegian arau hausterik izan den egiaztatzea, “baina kasuaren larritasuna ikusita, Batzordeak aztertu egingo du”. Sinkeviciusek “gabezia esanguratsua” antzeman daitezkeela ere esan zuen.

Euskal Herriko neska gazteak saretzeko webgunea sortu dute

>>> Euskal Herriko neska gazteen mugimenduak www.eh-koneskagazteak.eus webgunea martxan jarri du, denak saretzeko asmoz. Osasun krisiak webgunea martxan jartzeko prozesua azkartu du: “Sare sozialek

inoiz baino pisu gehiago duten honetan, ezinbestekoa ikusten genuen feminismotik eragiteko bitartekoak sortzea”. Internet bidez dinamikak, borrokarako tresnak eta erronkak zabalduko dituzte.



IAT azterketarako txanda interneten eskatzea da onena

>>> Aste honetan hasi dira lanean EAeko Ibilgailuen Azterketa Teknikoen (IAT) geltokiak eta milaka dei jasotzen ari dira, askori iraungi zaielako ibilgailuen azterketa tekniko konfinamenduan. Dei horiei normaltasunez erantzutea ezinezkoa egiten ari zaie eta, horregatik, bezeroei hitzordua internet bidez hartzeko eskatzen diete. Bestalde, instalazioetan babes neurriak jarri dituztela argitu dute eta, besteak beste, langileen eta bezeroen arteko distantzia tartea zainduko da.



LUIS MARI ITURBE EGUIAZU

2020 / 05 / 09

“Ez adiorik, ez agurrik, Gero arte baizik”

EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO ZURE FAMILIA





Colectivo BAT·ETORRI/ CONSENSO



Adinekoen baliogarritasuna aldarrikatu du Bat Etorri-k

>>> Bat Etorri pentsiodunen kolektiboak adineko pertsonenganako errespetu falta salatu du, alarma egoera honetan pertsona nagusiak “oztopo eta ezinbesteko gastu gisa” tratatzen dituzten erabakiak eta politikarien aipamen ugariak azpimarratuz. Euren ustez, urte luzez gizartearen garapen ekonomikoan eta sozialean lagundu duten pertsonetik errespetu gutxiko tratua da. “Adinaren arabera diskriminatzen saiatzen diren jarrera politikoak amaitzeko eskatzen dugu”.

Ekonomiaren zikloan adineko pertsonak funtsezko eginkizuna betetzen dutela diote eta bere balio justuan aitortu behar dela. “Gure zergekin (Errenta-Zerga, IBIa...), eguneroko erosketekin, aisialdiarekin...

produktuen salmentaren menpe dauden enpresa asko garatzen eta lanpostuen etorkizuna bermatzen laguntzen duen taldea gara”.

Euren giza-betebeharrak bete ondoren, NBEn, Europako Gizarte Gutunean eta Espainiako Konstituzioan aitortzen diren giza eta gizarte eskubideak betetzea eskatzen dute: “Lehenik, Osasun Zerbitzu Publikoa beharrezko izatea giza baliabide materialak eta osasun arloko langileak lan eta soldata baldintza duinak izanez. Bigarrenik, zerbitzu integral egokiak eta lan baldintza duinak dituzten Osasun Zerbitzua. Eta hirugarrenik, Bizitza Sistema duina eta bidezkoa. Hazkunde ekonomikoa garrantzitsua izango da, baina premiazkoa

da bizitzako kultura baten alde egitea, sistema bidezkoagoa eta solidarioagoa izateko”.

Gaineratu dutenez, “etxean arreta osoa eta integratua izatea garrantzitsua iruditzen zaigu. Baita osasun publikorako eskubidea duten egoitzetan joatea, urratsez urrats, egoitzetako arreta eredia eraldatuz, gizatiarragoa eta pertsonalizatuagoa izanez eta makro zentroak ezabatuz. Aldi berean, konpainia handien eta atzerriko funtsen inbertsioaren gogominaz kezkatuta gaude adinekoen arretaren arloan”.

Bi urte eta gero, pentsiodunen mugimenduak, inkomunikazioa izan arren, bere burua ikusarazten eta beraien eskubideak aldarrikatzen jarraitzen dutela ekarri nahi dute gogora: “Beti bezala arduraz laguntzen ari gara, osasun agintarien gomendioak aintzakotzat hartzen, COVID-19ren aurkako borrokan laguntzen”.

AUTUAN

JUBILATU ETXEETAKO ZERBITZUAK

Untzagako jubilatutako etxe ileapaindegi eta podologia zerbitzuak martxan ipini dituzte. Kasu bietan aurretik hitzordua telefonoz hartu beharko da eta kanpoan itxaron, atea zabaltzera joan arte. Ileapaindegirako txanda hartzeko telefonoa 943043022 da (sarrera beheko atetik, Untzagatik); podologoarekin txanda eskatzeko 665884466 telefonora deitu beharko da eta, sartzeko, Txaltxa Zelaiko parkeko atea erabili. Eta Beheko Tokiko masaje zerbitzurako txanda eskatzeko, berriz, 659107023 telefonora deitu behar da (Iñaki).

MARCAN HUELLA LANERAKO PREST

Marcán Huella txakurrak babesteko elkarteak, oraingo egoera pasatu eta betiko martxara bueltatzeko irrikitan daude, nahiz eta alarma egoeran ere lanean jarraitu duten, aparteko arazo barik. Laster hiru adopzio egiteko moduan izatea espero dute.



KONTXITA URIARTE SALSAMENDI

Eskerrik asko 94 urte hauetan emandako maitasun guztiagatik

BETI GURE BIZITZAREN PARTE IZANGO ZARA
LASTER ARTE, AMAMA



<<< AINARA LAVADO • ...eta kitto! Euskara Elkarteko arduraduna >>>



“Euskararena sekulako marka da saltzeko orduan”

...eta kitto! Euskara Elkartek, Berbetan mintzapraktika-programaren barruan, badu merkataritza eta ostalaritzan eragiteko programa zehatza: “Euskeraz primeran!”. Gaur egun bizi dugun egoerak elkartearen jarduna aldatu bai, baina ez du eten; alarma-egoera ezarri eta handik gutxira zabaldu zuen ...eta kitto!-k dendari eta ostalariei zuzendutako elkartasun-mezua, eta horrekin batera, establezimenduetan euskararen erabilera areagotzeko elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak eskaini dizkie berriz ere, inoiz baino beharrezkoagoak direlakoan.

Zergatik pentsatu zenuten garrantzitsua zela sektore ekonomiko hori?

70. hamarkadan herri industriala zen Eibar, baina primerako merkataritza eta ostalaritza zituen. Hiriburuetan topatzen ez ziren produktuak aurkitu ahal ziren hemen. 80ko hamarkadako krisiak ekarri zuen industriaren gainbehera Eibarrean, baina merkataritzak pisua irabazi zuen eta gaur egun Eibar da eskualdeko merkataritzagune nagusia. Euskarak zerbait irabazi badu ere, ez du bere lekua berreskuratu eta merkataritzak herritarren bizimoduan

duen pisua ikusita ezinbestekoa da sektorean eragitea.

Sektorean eragitea ezinbestekoa dela esaten duzue, euskararen biziraupenaz ari zara edo sektorearen biziraupenaz?

Dena elkar erlazionatuta dago. Egoera honek gure ahultasunak eta bata bestearikiko dugun beharra agerian laga ditu. Ekosistema orekatua eta indartsua behar dugu, duina. Momentu honetan argi dugu gure berezko ekosistema berreraiki behar dugula; dendari eta tabernariak argi dute bertakoen tzat ari direla lanean eta, zentzu horretan, euskarak gehiago eta

hobeto saltzen lagunduko diela. Produktuak saltzeko orduan bezeroen gustuak kontuan hartzen badira, nola ez da bezeroaren hizkuntza aintzat hartuko?

Konfiantza, kalitatea, segurtasuna, modernotasuna... horixe da, une honetan, bezeroak behar duguna eta, hain zuzen, balio horiek guztiak oso estu lotuta daude euskararen markarekin. Euskararena sekulako marka da saltzeko orduan. Horregatik abiatu genuen apirilaren 6an #Eibarrenbadakagu, #NikEibarregastaukot kanpaina, ekosistema horrek behar dituen elementuak baditugulako: den-

dariak, ostalariak, produktuak, bezeroak..., eta nola ez, euskara.

Orain dendari eta tabernariak aldaketa eta neurri zorrotzei aurre egin behar diete euren jardunarekin jarraitzeko. Non kokatzen da euskara?

Ekosistemaren parte garrantzitsua dira dendari, tabernari eta bezeroak. Euskara gabezi edo ahultasun moduan ikusi beharrean aukera eta indargune moduan ikustea ezinbestekoa da. Euskara erabiliz bezeroaren hizkuntza-eskubideak bermatuko dira, baina, horretaz gain, euskarari lotutako balioez baliatzen arituko dira.

<<< ANA AIZPURUA • ...eta kitto! hedabideetako koordinatzailea >>>



“Hedabideetatik herriko denda eta negozioei babesa eskaini nahi diegu”

Nola daramazue kazetaritzalana pandemia hasi zenetik?

Ez dugu etenik izan. Segurtasun-neurriengatik paperezko edizioa aste batzuetan etenda izan dugu, baina aldizkaria astero jarraitu dugu egiten, formatu digitalean izan arren. Gainera, web-orriaren eta sare sozialen bitartez etengabe jarraitu dugu informazio eguneratua ematen. Bi hilabete hauetan inoiz baino informazio gehiago sortu eta kontsumitu da. Funtzio sozial bat betetzen dugu, eta gure konpromisoari eutsi nahi izan diegu. Apirilaren amaieratik aldizkaria berriro dago buzoietan, gainera diseinu berrituarekin.

Euskara Elkartetik #Eibarrenbadakagu eta #NikEibarregastaukot kanpainak jarri dira martxan. Nola lagundu ahal duzue komunikabide bezala?

Hedabideen ataletik kanpaina-ekin jarraitzeko konpromisoa sendoa hartu dugu. Hor sartzen dira paperezko astekaria, etakitto.eus webgunea, sare sozialak eta gida komertziala. Momentu hauetan oso garrantzitsua da guztiok bat egitea, eta uste dugu hedabide moduan gauza askotan lagundu ahal dugula. Tokiko merkataritzari babesa emateko hedabideetatik artikuluak eta publizitate generikoa sustatuko ditugu. Era berean, saltoki

eta negozio horiek herrian eta ...eta kitto!-tik, nola ez, euskaraz publizitate-ekintzak egitera animatuz.

Nolakoa da zeuen arteko harremana?

Herriko dendek, taberneak, negozioek eta guk, tokiko hedabideok, gauza bat daukagu komunean, eta hori gertutasuna, hurbiltasuna da. Hori da gure altxorra. Urte asko daramatzagu elkarrekin lan egiten. Konfiantzazko harremana da. Eta orain, inoiz baino gehiago, indarrak batzeko sasoi da.

Zer eskainiko duzue publizitateari dagokionean?

Negozioak hor daudela gogo-

rarazteko edo berriro martxan jartzeko eta eskaintzen dituzten berrietasunak (ordutegi berriak, zerbitzu berriak...) herritarrei ezagutzera emateko, oso garrantzitsua da publizitatea; birus madarikatu honek ekarri digun egoera ekonomikoa nolakoa den kontuan hartuta, aldizkariko publizitate arlotik testuinguru berrira egokitutako promozio berriak jarri ditugu martxan, ordainketak egiteko erraztasun handiekin, eta lehen aipatutako geure arteko konfiantza horretan oinarrituz. Egoera hau berria da denontzat eta herri bezala egin beharko diegu aurre.

<<< **BELEN ULAZIA ETA ITZIAR ALBIZU**
...eta kitto! astekariko publizistak >>>

“Herriko bezero guztientzako eskaintza bereziak egongo dira”

#Eibarrenbadakagu, #Eibarrengastaukot kanpainaren barruan, publizitate-eskaintza eta promozio bereziak jarri ditu martxan ...eta kitto! astekariko publizitate-taldeak. "Bizi dugun egoera berri honetara egokitutako promozioak eskaintzea ezinbestekoa dela" uste dute Belen Ulazia eta Itziar Albizu astekariko publizistek.

Eibarko dendari, ostalari, negozio txiki, enpresa eta abarrek urte mordoa daramate ...eta kitto!-n publizitatea egiten, Belen eta Itziarrekin harreman zuzenean, "eta orain, inoiz baino gehiago, euren ondoan izango gaituztela gogoratu nahi diegu".

Kanpaina urte osoan egongo da martxan, eta ordaintzeko erraztasun handiak egongo

dira. Belen eta Itziarrek azpimarratu nahi dute edozein behar, kezka edo zalantza izanez gero, eurekin lasai jar daitezela harremanetan: "Gustora informatuko zaituztegu. Prest ditugun promozio desberdinak, ordaintzeko modu erosoak... azalduko dizkizuegu, eta beti zeuen beharretara egokitzen ahaleginduko gara. Denon artean aurkituko dugu irtenbide bat herriko dendari, ostalari edo negozioei bultzada emateko".

Elkartasuna beharrezkoa den une hauetan bezeroak aurrera egitera animatu nahi dituzte: "Idatzi edo deitu lasai, eta esan nola lagundu ahal dizuegun. Oso gustora azalduko dizuegu zuentzat prestatu duguna".



Belen Ulazia eta Itziar Albizu, ...eta kitto!-ko publizitate arduradunak.

Belen Ulazia:

688 621 535

belen.etakitto@gmail.com

Itziar Albizu:

656 704386

itziar.etakitto@gmail.com



<<< **VANESSA TORRE** • Dendarien Elkarteko presidentea >>>



“Krisialdi honetatik irteteko modu bakarra elkarri laguntzea da”

#Eibarrenbadakagu kanpaina abiatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak herriko dendari, ostalari eta negozioei babesa emateko. Zer iruditzen zaizu?

Horrelako ekimenak oso beharrezkoak ikusten ditut. Modu batean ala bestean, denok gaudela sartuta COVID-19ak eragin duen krisialdi honetan. Eta hemendik ateratzeko modu bakarra elkarri laguntzea da. Elkartasunak edozer gauzaren gainetik egon behar du. Horregatik, horrelako kontzientzia-

zio-kanpainak beti dira ongi etorriak. Hala ere, zoritxarrez, negozio askok ezingo dute aurrera jarraitu.

Orain dela gutxi egin genizun elkarrizketan argi esaten zenuen herriko dendetan erosten badugu, denok irabazten dugula.

Eta, zalantza barik, horrela da. Ideia edo filosofia hori lehen beharrezkoa bazen, are gehiago da orain.

Joan den astetik dendak zabalik daude. "Normaltasun

berrira" egokitzen ari zarete. Nolako izan da jendearen erantzuna? Euren babesa igarri duzue?

Herritarrak oso kontzientziatuta ikusten ditut. Erostera etortzen direnean euren berotasuna eta babesa adierazten digute, eta hemen egoteagatik eskerrik ematen dizkigute. Guregatik kezkatuta daude. Poztasun handia ematen digu horrek. Baina kontzientziazioa egonda ere, kontuan hartu behar da herritar askoren egoera eko-

nomikoa oso ahula dela une honetan; ezingo dute erosi ez hemen, ez beste inon.

Beraz, ahaleginak egin behar-kito ditugu denon artean egogera hau gainditzeko.

Nik 15 urte daramatzat Eibarren bizitzen, baina jakin badakit eibartarrak momentu txarretan elkarrekin jarduteko gai izan direla. Beti izan zarete horrelakoak. Herritarrak beti batuta egon zarete eta momentu zailetatik bat eginda irtetea lortu izan duzue.



Nagore Fernandez

NAGORE FERNANDEZ



Felix Morquecho

FELIX MORQUECHO

“Normaltasun berria”

“Baina, nire etxea da eta nik ordaintzen dut, ezin dut nahi dudana egin?” Askotan harritzen da jendea etxeko obra egiterakoan gela bakoitzak gutxieneko azalera edo leiho tamaina jakin bat behar duela esaten diogunean. Beharbada orain hobeto ulertuko dira arau guzti hauek... Izan ere, inoiz baino denbora gehiago ematen dugu etxean. Inoiz baino betebeharrak gehiago gauzatzen ditugu bertan: egongela gimnasio berria da, jangela ikasgela ere izan daiteke eta sukaldea okindegi profesionala bilakatu zaigu. Hobebeharrez konturatu gara espazioak moldagarri izatearen garrantziaz.

Horretaz gain, azken asteetan leiho, balkoi eta lorategi bakoitza altxor bat izan da, internetez erositako kanporako altzarien igoerak agerian uzten du; argi eta aire naturalaz gozatzea ahalbidetzen digun altxorra. Eta ez hori bakarrik, aurpegi berriak agurtu edo bizilagunekin solasteko gunea ere horixe izan baita!

“Ziur naiz, etorkizun laburrean aldaketak nabarmenduko direla: etxe polibalentea diseinatuko dugu eta ohiko eskaera izango da terraza edukitzea”

Ziur naiz etorkizun laburrean aldaketak nabarmenduko direla: etxe polibalentea diseinatuko dugu eta ohiko eskaera izango da terraza edukitzea, gure lurralde euritsu honetan bada ere. Eta hirigintza ere astinduko du krisi honek, edo hala beharko luke: etxebizitza duinak azalera, argiztapen eta aireztapen egokiak ziurtatu behar dituen bezala, hiri duinak biztanleentzat espazio zabal, atsegin eta erosoak gorde behar baititu, autoen aurretik oinezkoak edo ibilgailu jasangarriak sustatuz.

Osasungarritasunari lotutako arau berriak sortuko dira, bizi-molde berriak, normaltasun berria deitu duten hori. Ez da lan samurra izango, are gehiago Eibar moduko hiri dentsuetan, baina guztion bizi-kalitatea hobetzeko dela ulertu beharko dugu. Gure etxean gustora bizi gaitzen eta aldi berean kaleak berreskuratu ditzagun, beldurrik gabe eta azken egunetan sentitu dugun irrika berberaz.

“Aukeraketak”

Oraindik ez da astebete #PhotosOfMyLife erronkan sartu nindutela. Ez dakizue zer den? Gogoratzen dituzue “Bidali hau bezalako hamar eskutitz eta Petronilo Deunak zortea ekarriko dizu” horietakoak? Bada, antzekoa, baina internet dela medio, eta tartean madarikaziorik gabe. Kontua da zazpi egunetan jarraian zazpi argazki argitaratzea Twitterren (badakizue, sare sozial ez den hori, komunikabidea dena, Luistxok dixit). Gainera, egun bakoitzean beste ezagun bat aipatu behar duzu, hori da zailena! Proposamena zuri ailegatzen zaizunerako ia ezagutzen dituzun argazkilari guztiak tirokatuta daude. Baina, argazkiak jartzea? Zazpi? Erraza. Orain dela urte eta piku, orri hauek, 20.000 argazki aterata nituela argitaratu zen. Datua ez zen zuzena, 20.000 gai ziren-eta. Batazbesteko bat hartuta, erraz izango dira milioitik gora argazki azken bi hamarkadetan. Beraz, zazpi aukeratu? Zazpi edukiko ditut bai, baina, nondik hasi? Gauzak egitea ala ez erraza edo zaila izan daiteke, baina aukeraketak egitea beste kontu bat da. Batzuetan ikusgarriena nahiago, besteetan zaharrena jarriko dugu aurretik... Hogeia aldiz eginda ere seguru ez dugula aukeraketa berdina egingo.

Modu berean gaur egun aukeraketa zailak dauzkagu aurrean. Gure ordu-esparruan kalera atera edo ez, betiko leku berdinetara joan ala lasaiago egongo direnak aukeratu, tokatzen zaiguna (eta pixkat gehiago) aprobetxatu edo ahalik eta gutxien arriskatu, konplitu edo marra gorrien gainetik pasa. Ea, aukeratu.

“Gaur egun aukeraketa zailak dauzkagu aurrean. Gure ordu-esparruan kalera atera edo ez, betiko leku berdinetara joan ala lasaiago egongo direnak aukeratu...”

EIBARKO ORBEA HAURRESKOLA



Laister
matrikulazioari
buruzko informazioa
www.haurreskolak.com
helbidean



MUGIMENDU
LIBREA

Bittor Sarasketa , 11
orbea.eibar@haurreskolak.eus
943200384



HAURREN
ERRITMOAK
ERRESPETATUZ



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK
JOSE MARIA AZUENDEGARRETA S.COOP



Ate Irekiak Online
Maiatzak 25 - 26 -27

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/igmh •onarpere.ihm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Zergatik aukeratu zenuen Fabrikazio Mekanikoko diseinua? Batxilergoko ikasketak amaitu ondoren Elektronikako Ingeniaritzan matrikulatu nintzen Mondragon Unibertsitatean, baina ez zen nik espero nuen eta utzi egin nuen. Hala ere ikasten jarraitzeko gogoa nuen eta marrazketa gustokoa nuen Fabrikazio Mekanikoko diseinua Heziketa Zikloa aukeratu nuen.

Eta zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoa? Zu Elgoibarkoa izanik, zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (MGEP)?

Aurreko urtean, Mondragon Unibertsitatean ikasi nuen ingeniaritza eta oso gustura egon nintzen. Metodologia eta instalazioak ezagutzeko, Arrasaten jarraitzea erabaki nuen. Egunero Arrasatera joateak zekarren gastua kontuan hartu nuen, baina azkenean merezi zuen. Horretaz gain, guztiok dakigu MGEPek enpresek duen harreman estua.



Eider Arnedo Aguilera - Elgoibar

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten dugu, hau da, talde-lanean eronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer aipatu dezakezu honen inguruan?

Metodologia egokia iruditzen zait gai guztiak praktikan jartzeko eta taldean lan egiten ikasteko. Ziklo osoan eronka ugari izaten ditugu. Adibidez, muntai bat desmuntatzea, makinaren bat berritzea, edo gure muntaketa diseinatu eta muntatzea. Taldeak trikiak direnez, lan gehiago egin arren, asko ikasten da. Hasieran, kostatu egiten zitzaidan nire taldekoen eritmoari jarraitzea, batzuek beste ziklo bat eginda baitzuten eta bazekiten zer eta nola egin behar zen. Baina horrek ikasten lagundu dit. Gainera, uneoro, irakasleek lagundu egiten dute, bai eronka egiteko orduan, bai klasetik kanpo ere.

Zikloan zehar, izan duzue harremanik enpresek?

Bai, zikloarekin lotura zuten enpresa batzuk bisitatzeko aukera izan genuen eta 2.mailan praktikak enpresan egiten dira. Nire kasuan Copreci enpresan (Aretxabaletan) hasi nituen nire praktikak. Zoritzarrez, COVID19 dela eta ez naiz denbora luze egon, baina denbora horretan piezak diseinatzen, berriseinatzen, fabrikazera bideltzea eta aurrekontuak egiten ikasi dut. Egin dudana lana ikasitakoarekin erabat lotuta egonda. Gainera gehiago ikasteko eta beste programa mota bat erabiltzeko aukera ere izan dut, lotuta egonda. Gainera gehiago ikasteko eta beste programa mota bat erabiltzeko aukera ere izan dut.

Azkenik, ze gomendio emango zenioke zikloak aukera bezala aztertzen ari den ikasle bati?

Lehenik eta behin, ondo informatu eta gero, pentsatu benetan lanean aritzea gustatuko litzaizukeen. Nik nahiko gustuko dut zikloa, egia da irakasgai batzuetan kostatu egiten zitzaidala, baina emaitza onarekin bukatu dut kurtsoa. Ahalagin guztiak dute sarria!



Auzoko neska eta mutilen arteko jolasak

Ume asko auzoan. Jolasak: pilotan, harrapatzen, ezkututzen... "oin baiño be traste gitxiagokin..." Kaniketan, aponak (tortolosak). Mutilak eta neskak denak batera: jolasean, eskolan... "Horrek ziran gure ibilixak!".



Haurrak, zaku lasterketan, 1965. urteko argazkian (FOTO PLAZAOLA).



Euxebi Gisasola Aldazabal
(1922 – 2008)

Aginagako Zumaran baserrian jaiotakoa. Ama Arrate Mugitzaberi baserrikoa zuen. 8 urte zituela, Aginagako eskola egin zuten eta bertan egin zituen ikasketak Gerra Zibila hasi zen arte. Sasoi hartan Euxebik 14 urte zituen. Garai gogorra zen, baina Gisasolatarrak baserrian gelditu ziren. Ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen. Eibarko euskararen gaineko hainbat ikerketa eta liburutarako eman du bere lekukotasuna.

Euxebi Gisasolari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Hainbeste ume izanda, jolasian eingo zenduen, ezta?] "Baaai! Ene! Jolasian...! Pelotan ta harrapatzen ta ezkututzen ta... Oin baiño traste gitxiagokiñ. Zera, kaniketan ta... kaniketan be bai ta gero aponiak esaten jakon, bildotsan... eztakit, zuk ez dozu jakingo... Badakizu zer dan aponiak? [Tortolosak?] Tortolosak. Harekin, aponeketan ta... [Zelan eitten zan aponetan?] Ba, bota holan ta zeinek... zeretara, ezta? Lau zer dakaz harek ta haretxetara. Ba... [Izena zeken? Alde bakotzak izen bat?] Baietz uste dot baiña oiñ ezin neiketzu esan [...] ta igual da, baiña badakit aponeketan eitten genduana [...] Kaniketara potxolotxua ein ta hara zeinek kanikak sartu ta... [Ta neskak eta mutillak batera?] Batera! Batera! Ke ba! Danok batera orduan! [Ez zeguan mutillen jolasak eta nesken jolasak eta holakorik?] Ke ba! Oin, mutillak, ba, jeneralmente, pelotan gehixago eitten ebela guk baiño... baiña... Ez, ez... Ez, ez... danak igual orduan! Bueno! Eskolan be igual ta... danian!".

E
IBARTARREN



Arrautza lasterketa, Ipuruako jaietan. 1969ko ekainaren 18ko argazkia (FOTO PLAZAOLA).

Tortolosestan nola jolasten zuten

Tortolosestan jolasten zuten umetan. Ahariaren tortolosak izaten ziren ederrenak. Jolasa nola izaten zen. “Estanpetan” ere asko jolasten zuten, lurrean eserita. Lehen lasaiago ibiltzen ziren.



Tomasa Idarraga Zulaica
(1914 – 2008)

Arragueta kalean jaio zen, baina artean umea zela Txontako Telleria kale-baserrira joan ziren bizitzera. Ama elgoibartarra zuen; aita, berriz, eibartarra, Urkuzei baserrikoa. Txonta eta Urkizu ingurua oso ondo ezagutzen zituen eta azalpen interesgarriak ematen ditu bertako toponimia, baserri, eraikuntza eta lantegien inguruan

Tomasa Idarragari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Eta beste jolasik edo? Tortolosestan edo?] “Ohh, tortolosestan! Orduan zeranak izaten ziran tortolosak edarrak, zeranak... zelan da hori *carnero*, euskeraz zelan da? [Adarixa] Adarixanak. Harek ziran harek tortolosak! Bestiak ziran korrientiak, baiña harenak ziran... brillantiak eta ederraguak! Oin, desaparezidu jataz danak neri be, danak galdu, gerra denporan danak galdu... [Eta zelan jolasten zenduen? Kanturen bat bazeguan?] Ez, ez, ez, ezebez. [Eta zelan zan jolasa?] Zelan esango detsut ba nik? Holan, jaurtitzen zan pelotia goruntz eta harek egoten ziran holan, altxatute, ezta? Eta holan bota pelotia goruntz eta han, tente ipiñi edo bueltia emon... egitten jakon. Segun ze joko zan, haretxe, edo tente ipiñi... Jopeee, ahaztuta gauzak! Polittak ziran orduan... ta estanpetan jaso, zenbat bidar! Han, kantoian jarri eta estanpetan, zenbat zenbat bidar! [Orduan, gaiñera, kalia asko jolastuko zenduen, ezta? Ez zeguan peligrorik...] Ez, ez, ez, hainbeste ez. Oingo moduan? Ke ba, ke ba! Oingo moduan ez, orduan trankil, jarri lurrian...”

A
HOTAN



Euskaraz ikasi eta lan egin

Lanbide Heziketaren barruan hainbat arlo ezberdin ikasteko aukera dago. Eskaintza zabala da, eta enpresa munduan edo administrazioan lan egiteko aukerak ematen dituzte ikasketa horiek. Gazte askok orain egin behar dute hautua. “Zer ikasiko dut?”, “zein bide hartzea komeni zait?”. Bide bat edo beste aukeratu, euskara bidelagun izatea berebiziko erabakia izan daiteke.

Eibarko enpresa eta tailerretan, lan egiteko orduan, kalean baino euskara gehiago erabiltzen da. Gero eta enpresa gehiagok du euskara-plana, eta euskarak garrantzi handia dauka eguneroko jardunean. Horren adibide da Urkotronik, vending eta ostalaritza zerbitzu integralak eskaintzen dituen enpresa eibartarra.

Zuzendaritzak sustatuta eta ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean, 2007. urtean euskara-plana jarri zuen mar txan Urkotronikek, eta euskara lehen lerroan kokatu zuen. Egoeraren diagnostikoa egin eta kudeaketa-plana diseinatu ondoren, langile guztiek trebakuntza-saioak jaso zituzten lana euskaraz garatu ahal izateko, eta urte eta erdian aldaketa nabariak igarri zituzten.

Enpresaren barneko eta kanpoko komunikazioan euskarak protagonismoa du. “Bezero guztiak euskaraz komunikatu daitezke gurekin, eta gure komunikazioak euskaraz eta gaztelaraz egiten ditugu, euskara aurretik

jarriz”, esan digute Urkotronikoek. Enpresaren paisaia linguistikoa (errotulazioa, pape-rak...) bi hizkuntzetan dago eta enpresaren errepresentazio-lanak euskaraz egiten dituzte ahal den guztietan.

Zuzendaritzak eta langileek motibazio eta gogo handiz eusten diote euskara-planari. Horrela, Urkotronikaren etorkizuna euskaraz marraztuko da.

Urkotronik adibide bat besterik ez da, baina euskara-plan bat izan ala ez, inguruko enpresa askotan nagusi da euskararen erabilera. Beraz, Lanbide Heziketa euskaraz ikasteak egundoko garrantzia izan dezake, lan munduan euskara erabiltzeko gaitasuna edukitzeak langileari balio erantsia ematen baitio.

Arlo publikoan lan egiteko aukera gehiago

Lanbide Heziketa euskaraz egiten dutenek 2.HE titulua eskuratzen dute, erakunde publikoek eskaintzen dituzten lanetan aritzeko ezinbestekoa

“Arlo publikoan lan egiteko ezinbestekoa da euskarazko agiria edukitzea”

izan ohi den euskarazko agiria. Ainhize Ortuondo Eibar-ko Udaleko pertsonal buruak esan digunez, Udaleko lanpostu gehienek gutxienez euskarazko agiri bat edukitzea eskatzen dute. “Orokorrean 2.HE titulua edukitzea eskatzen da”, esan digunez.

Lanpostuaren arabera euskarazko hizkuntza-eskakizun bat zehazten da, eta lanpostu horretan herritarrekin edukitzen den harremanaren, lan horretan egin behar diren ekintzen eta beste hainbat parametroren arabera zehazten da euskaraz-

ko zein eskakizun beharko den. “Brigadako peoiei eta garbitzaileri izan ezik, gainerako udal-langile guztiei hizkuntza-eskakizuna eskatzen zaie”. Hori kontuan izanda, Ortuondoren zat oso aukera ona da Lanbide Heziketa euskaraz ikastea, arlo publikoan lan egiteko askoz ere aukera gehiago eskaintzen dituen eta. “Gainera, hizkuntza-eskakizuna eskatzen ez den lanpostuetan ere baloratu egiten da hura izatea”.

Sasoi berria erakunde publikoetan

Herritarrek administrazio publikoarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezten bermatzeko pausoak eman dituzte azkenaldian euskal erakundeek, eta Eusko Jaurlaritzak udal-administrazioetan euskaraz funtzionatzea errazteko dekretua onartu zuen joan den azaroan. “Tokiko erakunde publikoetan sasoi berri bat hasiko da”, esan zuen Josu Erkoreka EAeko Gobernu bozeramaileak. “Herritarren eskubideak



Lanbide Heziketako ikasleentzat berebizikoa izan daiteke ikasketak euskaraz egitea etorkizunean lana aurkitzeko.

bermatu beharko ditugu eta, herritarrak arreta euskaraz jaso nahi badu, euskaraz eman beharko diogu”, dio Ortuondok.

Eibarko Udalaren barruan denetariko lanak egiten dira. “Administrazio publikoan arlo ezberdinetako jendeak egiten du lan: ingurugiroko teknikariak, lorazainak, mekanikoak,

administrariak... aukera oso zabala da”.

Lan-baldintzak ere kontuan hartzekoak direla uste du Ortuondok. “Lan asko egiten da, baina lan-baldintza onak eskaintzen dira administrazio publikoan”. Dena dela, hori ez da sekretua eta Ortuondok dio gero eta jende gehiago aurkez-

ten dela oposizio eta lan-poltsetara. “Baina hori bai, administrazio publikoan lan egin nahi izanez gero, euskarazko agiria eduki behar da”.

Administrazio publikoan lan egiteko oposizioak gainditu edo lan-poltsetan izena eman behar da, eta lan-poltsetan dagoen jendeak azterketak egin behar iza-

ten ditu Eibarko Udalean lana lortzeko. “Momenturen batean lan-poltzarik ez badago, alboko herrietako lan-poltzak erabili ditzakegu, eta alboko herriek berdin egiten dute. Kontuan hartzekoa da hori”. Argi dago euskara ere oso aintzat hartzeko dela Lanbide Heziketa nola egin erabakitzeko orduan. ■



Estaziño, 3
klaus
943 10 58 10

- Denda
- Dekorazioa
- Erreformak
- Proiektuak


ASTELENA
GASTRO-TABERNA
Janari eta edariak eramateko zerbitzua

- APERITIBO HOTZAK
- ETA BEROAK
- RAZIOAK
- FRIJITUAK
- ENTSALADAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- HANBURGESAK
- PASTAK ETA ARROZAK
-

Estaziño 7 943 207032
bapobapo.com
just-eat.es

<<< JON ETA OIHANE
Ibarkurutze fruta-denda >>>

“Itxialdi honetan giro berezia sortu da bezeroen eta gure artean”

Koronabirusak ez du eten Ibarkurutze fruta-dendako Jon eta Oihaneren lana. Itxialdiaren zatirik gogorrean ere barazkiz eta fruituz bete dituzte herriko etxeak eta bezeroen erantzuna bikaina izan da euren iritziz. Sasoi berrira moldatu dira eta, dendako ateak zabalik eduki arren, WhatsApp (680382091 edo 664718699) bidezko eskaerak ere jasotzen dituzte, bezeroen beharretara egokituz.

Hasieran nola moldatu zinen alarma-egoerara?

Alarma-egoera ezustean iritsi zen eta kezkatuta geunden, ez genuelako informazio askorik. Itxialdiaren lehen astean denda goizez irekitzea erabaki genuen eta Italiatik albiste latzak iristen ari ziren. Nahiko beldurtuta geunden. Segurtasun- eta osasun-neurri bereziak hartu genituen, egoera berrira egokitzen. Lehen, adibidez, bezeroek erosi nahi zituzten produktuak hartzen zituzten, baina orain gehienez bi pertsona sartu daitezke dendan eta produktuak gure ematen dizkiegu.

Hasieratik izan duzue materiala eskura?

Hasieran ez genuen maskararik edo eskularrurik. Ez genekien zer egin ere. Pentsatzen genuen moduan jokatu dugu. ‘Kenko’-ko Enekok eskularru batzuk ekarri zizkigun eta beste lagun batek maskarak, inon ere ez bai-kenituen aurkitzen.

Nola erantzun dute bezeroek egoera berri honetan?

Betiko ohiturak aldatzea zaila da, pertsona nagusientzat batez ere, baina jendeak ondo ulertu du zein den egoera eta zeintzuk diren hartu beharreko neurri bereziak. Bezeroak oso ondo portatu dira gurekin eta oso eskertuta gaude. Egoera honetan eurentzat erraza izango litzateke saltoki handi batean erostea, toki berean denetarik erosi daitekeelako, baina gurrera etortzen jarraitzen dute eta, gainera, denda zabalik izateagatik eskerrak ematen diz-

“Betiko ohiturak aldatzea zaila da, baina jendeak ondo ulertu du zein den egoera”



kigute. Giro berezia sortu da gure artean.

Salmenta kopuruari dagokionez, aldaketarik igarri duzue?

Ez dakigu ohikoa baino jende gehiago ibili den, baina bai esan dezakegu jendeak ohikoa baino gehiago erosi duela. Erosketa handiagoak egin dituzte, etxetik gutxiagotan irteko, hasieran batez ere. Bestetik, tabernak eta jatetxeak itxita egon direnez, jendeak ezin izan du kalean bazkaldu edo afaldu, eta dendetan gehiago erosi du.

Itxialdiaren sasoirik gogorrean produktu faltarik izan duzue?

Ez. Baina gure sektorean gertatu dena da prezioak igo egin dituztela salmentaren katean gure aurretik daudenek. Produktuen eskaera handitu egin da eta, ondorioz, produktuen balioa igotzea logikoa da, baina ekoizleak egoeraz aprobetxatu direla uste dut.

Itxialdia arintzen doala igarri duzue?

Bai. Hasieran zoroaren pare ibili ginen, jendeak ez zekien produktuen falta egongo zen ala ez... baina egoera honetara ohitzen joan gara eta osasun-larrialdiaren aurreko egoerara hurbiltzen goaz, poliki-poliki. Hau da, jendeak eguneko erosketa egiten du, ez aste osokoa.

Zein ordutegi duzue orain?

Momentuz goizean bakarrik zabalduko dugu. Ez dakigu horrela jarraituko dugun alarma-egoera amaitu arte ala arratsalde zabalduko garen, egoeraren arabera ikusiko dugu. Bezeroek goizez etortzeko ohitura dute, beraz, horrela jarraituko dugu momentuz. Agian, ohitura berriak sor daitezke eta gerora begira gerta daiteke ordutegia aldatu behar izatea. Lan asko egiten dihardugu, nekeza da bezero guztientzat gauzak prestatzea, baina pozik gaude ordutegi horrekin.



Gazteei askotan leporatzen zaie **"NINI"** terminoa, (gaztelaniaz "NI estudia, NI trabaja"). Ezin horrelakorik esan, ordea, euren esperientziak gurekin partekatu dituzten gonbidatuei buruz; izan ere, ikasten eta lanean ari dira edo aritu izan dira. Olatz Etxaburu, Iker Amas, Ane Atristain eta Nora Illarramendi ditugu solaskide.

Zein adinekin hasi ziren lana eta ikasketak uztartzen? Zerk bultzatuta? Zein abantaila eta desabantaila ikusten dizkiote bateratze honi? Berrito ere egingo lukete? Zein aholku ematen dituzte? Horretaz guztiaz mintzatuko zaizkigu hurrengo lerroetan.

Kazetaria: **Malen Illarramendi Beitia**

GAZTEON Lana eta ikasketak uztartuz



Zer diote mahai-inguruko kideek?



NORA ILLARRAMENDI
Irakaslea

“Atzera begira ere erabaki bera hartuko nuke eta lana eta ikasketak uztartuko nituzke, baina Erasmuseko urtean lana utzi eta esperientzia bizitzera joango nintzateke; pena horrekin geratu naiz”



IKER AMAS
Irakaslea eta tabernaria

“Lanean eta ikasten nagoen bitartean oso denbora libre gutxi daukat, batez ere asteburuetan egiten dudalako lan. Jende guztiak jai daukanean ni lanean nago, eta alderantziz, jendea okupatuta dagoenean, ni libre”



ANE ATRISTAIN
Fisioterapeuta

“Nire lan-munduan ez bazaude etengabe formatzen, atzean geratzen zara. Eta atzean geratuz gero, beste guztiak aurretik pasatuko zaizkizu”



OLATZ ETXABURU
Hezitzailea

“Ikasitakoa praktikan jartzea eta dirua irabaztea dira lana eta ikasketak uztartzearen onurak. Zure gastu minimoak estaltzeko dirua lortuz gero, plan gehiago, oporraldiak... egiteko aukera daukazu”

Begizuloak izaten dituzte; presaka ibiltzen dira batetik bestera; egunak ez ditu behar beste ordu haientzat. Ikasten eta lanean batera aritzen diren gazteez ari naiz.

Ez da oso ohikoa ikasi bitartean lanean ere jardutea, baina badira bi ekintza horiek bateratzen edo uztartzen dituzten gazteak. Erreportaje honetan lau gazteren testigantzak jaso ditugu, zeintzuen bidez euren bizipenak gertutik ezagutu ahal izango ditugun.

24 eta 25 urte bitarteko gazteak dira laurak, baina badute zer kontatu. Izan ere, batzuen kasuan, urte luzeetako esperientzia dute. Nora, esaterako, 16 urte besterik ez zituela, batxilergoan, hasi zen dantzi-irakasle gisa lanean, eta ordu tik, horretan jarraitzen du. Goi Mailako Haur Hezkuntzako Zikloa eta Lehen Hezkuntzako Gradua burutu ditu tarte horretan, eta gaur egun

“Egoera honek balio izan dit konturatzeko zenbat eta denbora gutxiago eduki, orduan eta hobeto antolatzen dudala neure burua” **Nora**

Aldatze ikastetxean dihardu hezitzaile.

Aneren kasuan, 21 urterekin hartu zuen ikasketak eta lana bateratzeko erabakia, eta Fisioterapia Gradua eta Esku Terapia Graduondoa amaitu ostean, Ondarruko errehabilitazio zentroan eta Eibar Futbol Taldeko emakumeen lehenengo taldean dabil fisioterapeuta gisa.

“Ikasi bitartean egindako lanek aukera ematen dute ikasitakoa momentuan bertan praktikan jartzeko, eta aurrera begira oso baliagarria da hori” **Ane**

Olatzek, bestalde, Goi Mailako Haur Hezkuntza Zikloa ikasi zuen, eta, orain, Gizarte-ratzeko Goi Mailako Zikloan dihardu. Beti ere lana alde batera utzi gabe; izan ere, Argatxa eskolan zaintza zerbitzua egiten du, La Salle Isasi ikastetxeko jantokian begiralea da eta arratsaldeetan 2 haur zaintzen ditu.

Ikerrek, era berean, Lehen Hezkuntzako Gradua eta bi aipamen ditu eginda, eta hezkuntza arloan hainbat lanetan aritu den arren, orain Guridi tabernako zerbitzaria da.

Lana eta ikasketak bateratzeko arrazoiak galdetzen zaie-nean, lau gazte hauek bat datoz esatean gutxieneko independentzia ekonomikoa lortze aldera hasi zirela lanean, horrek aukera ematen baitie gurasoen mende guztiz ez egiteko, eta bestela egin ezingo lituzketen bidaiatxoak egiteko, besteak beste. Horrez gain, behin graduko ikasketak amaitu ondoren, ikasten jarraitzeko ere baliatu dituzte lanean ateratako sosak, laurek diotenez, behin maila batetik aurrerako ikasketak (masterrak, aipamenak, graduondok...) garestiak izaten dira-eta.

Sakrifizio hitza aipatzea ezin bestekoa da gazte hauen bizimoduaz ari garenean; izan ere,

eskolan edota unibertsitatean jardun ondoren, etxera iritsi eta deskonektatu eta erlaxatu beharrean, martxan jarraitu behar dute, landutako materia egunean eraman ahal izateko. Esan gabe doa azterketa garaian are gogorragoa dela egoera. Denek diote hori dela, hain zuzen, garairik sakrifikuena, baina oro har esfortzua beti egin behar dela. Noraren hitzetan, hala ere, “egoera honek balio izan dit konturatzeko zenbat eta denbora gutxiago eduki, orduan eta hobeto antolatzen dudala neure burua. Gainera, libre du dan denbora apurra ere topera aprobetxatzen saiatzen naiz”.

Pertsona gisa aberasgarria

Beraz, zenbait kasutan uzartze hau nork bere burua hobeto ezagutzeko modu bat ere badela esan daiteke.

"Oso aberasgarria da zure arlokoak ez diren beste lan batzuetan aritzea, ezagutza orokorragoa ematen baitu horrek" Iker

Poltsikorako aberasgarria izateaz gain, pertsonalki ere onuragarria dela azpimarratu dute gazteok, lan-mundua gertutik ezagutzea abantaila handia baita etorkizunera begira. Gainera, lehen ez bezala, gaur

"Momentu batean neure burua itota ikusi nuen eta aurrez aurreko klaseetara ez joateko baimena eskatu behar izan nuen" Olatz

egun zaila da ikasketak amaitu eta berehala lanean hastea. Beraz, norbere ikasketekin lotutako lana aurkitu bitartean, ohikoa da beste arlo batzuetan aritzea. Ikerrek, adibidez, arlo ezberdinetan egin du lan, eta

nahiz eta denek bere ikasketekin loturarik ez izan, denetatik ikasi du zerbait: “Oso aberasgarria da zure arlokoak ez diren beste lan batzuetan aritzea, ezagutza orokorragoa ematen baitu horrek”.

Oro ez da urre

Dena dela, kontu honetan ere oro ez da urre, eta gazte hauek desabantailak edo alde txarrak ere aipatzen dituzte: kasu batzuetan asteburuetan lan egin beharra, denbora falta, Erasmus bezalako egitasmoei uko egin beharra... Olatzek honela diosku: “Momentu batean neure burua itota ikusi nuen eta aurrez aurreko klaseetara ez joateko baimena eskatu behar izan nuen”.

Hortaz, denen hitzetan, garbi eduki behar da horrelako “abentura” bati ekiten zaionean, beste hainbat gauza alde batera utzi beharko direla. Alegia, batzuetan ezingo zaio lagunek egiten duten bizitza sozialari jarraitu: afariak, poteoak, irteerak... eta hori uste baino gogorragoa da batzuetan.

"SISI"ak

Atzera begiratzen dutenean, harro sentitzen dira egindako ahaleginaz. Eta berriro ere, betiere egoeraren arabera, erabaki bera hartuko luketela diote, denborarekin momentu onak errazago gogoratzen direlako une gogorak baino. Anek, esaterako, honela dio: “Ikasi bitartean egindako lanek aukera ematen dute ikasitakoa momentuan bertan praktikan jartzeko, eta aurrera begira oso baliagarria da hori”.

Lau gazte hauen jarrerak argi erakusten du “NINI”ak bai, baina “SISI”ak (gazteniaz, “SI estudia y SI trabaja”) ere badirela gazteen artean. Urte batzuetako begizuloak eta nekeak etorkizunean lortu nahi dituzten helburu bihurtuko ahal dira! Gazte-gaztetatik adierazi duten interesagatik, motibazioagatik eta eskuratu duten esperientziagatik, baliteke profil hauetako gazteak izatea enpresa askok bilatzen dutena.



Zein gomendio ematen dituzte gazteek?

NORA ILLARRAMENDI

“Argi eduki behar da lanean eta aldi berean ikasten aritzea sakrifizio handia dela eta esfortzu eta dedikazio handia eskatzen duela horrek”

OLATZ ETXABURU

“Ikasten duzuna eta egiten duzun lana gustatuz gero, aurrera! Hasiera gogorra da, baina bukatzen duzunean sentitzen duzuna oso *guay* dago, pozgarria da”

ANE ATRISTAIN

“Nik uste dut erabakia hartu aurretik ondo pentsatu behar dela. Ondo antolatu beharra dago eta jakin egin behar duzu zenbat denbora eskaini beharko diozun gauza bakoitzari”

IKER AMAS

“Benetan ikasketa serioak prestatu behar badituzu, esaterako, oposizioak, nik uste dut lan egitearena alde batera laga behar dela, eta dedikazioaren %100 ikasketei eskaini behar diezula”



Spotify



iVoox

Sartu zaitetz etakitto.eus web orrian, eta bertan aurkituko duzu mahai-inguru honen grabazioa.



Lana eta ikasketak uztartuz

Podcast-a entzun nahi?

Mahai-inguru honen **PODCAST** edo audio grabazioa **Spotify**n eta **iVoox**en entzun eta deskargatu daiteke. Plataforma horietan gazteON izenarekin aurkituko gaituzu. Oso modu errazean!

Podcast-a ingelesetik datorren hitza da (IPOD eta BROADCAST). Mugikor eta ordenagailuetatik entzun daitekeen multimedia fitxategi honek indar handia hartu du azken bolada honetan. Hori ikusita, gazteONeko atala ezin da atzean geratu, eta grabazio hauekin martxan jarri da.

<<< MIGUEL DE LOS TOYOS • Eibarko alkatea >>>

“Beharrezkoa da solidarioak izatea, batez ere gehien galdu dutenei laguntzeko”

Miguel de los Toyos alkateari ere ohiko eginbeharrak aldatu dizkio pandemiak eragindako egoerak eta telelana eta bideo-deiak eguneroko bihurtu zaizkio azken aldian. Prozesuan urrats sendoak eman behar ditugula sinestuta dago, haundiak baino. Atzo, bestalde, Udaleko Bozeramaileen Batzordeak jardun ekonomikoari laguntzeko onartutako hainbat neurri aurkeztu zituen.

Alarma egoera piztu zenetik zelako egoera bizi izan duzu?

Egoeraren kudeaketa geraezinezko ikasbidea izan da. Probatu eta akatsetatik ikasten joan gara, errealitate berrira egokitze prozesuan. Halakorik ez dugu inoiz bizi izan eta inprobisatzea egokitu zaigu. Hori bai, barne-kontsentsuei jarraitu diegu, horko erabakiak inplementatzeko. Estres puntu batera ere iritsi gara, baita emozionalki ere: muga-muga-ko egoeretan, gertuko jendea tartean dagoela... Balio izan digu -guztioi- jendea deskubritzeko, auzokoen aurpegiei begiakjartzeko... eta harrotasunez aipatu izan dugun eibartarron elkartasunerako prestutasun hori olatua bihurtzeko.

Barne-kontsentsua aipatu duzu. Hor udaleko beste alderdiek hartu izan dute parte?

Bai. Erabakiak Udalarenak izan dira, ez alkatearenak. Pandemia dela-eta, Bozeramaileen Batzordeko kideon artean whatsapp taldea osatu dugu eta egunero gaude harremanetan.

Lan-kantitateak gora egin du? Zein mailan izan duzue lan gehien?

Errealitate berrira egokitu behar izan dugu eta telelana eta bideo-deiak nagusitu dira egunotan. Ordu gehiago ere eskaini behar izan diogu lan horri. Orain dela 30 urte askoz zailagoa izango zen hau guztia





De los Toyos alkateak inoiz baino boletin ofizial gehiago irakurri ditu azken aldian.

kudeatzea. Aurrekoan Espainiako beste 25 alkaterekin izan nintzen aldi berean gure lanaren nondik-norakoak elkartrukatzen... Kudeaketa administratiboa ere ohitzen joan da, egunez egun beste intentsitate bat hartuz. Egunero 08:00etan biltzen naiz Udaltzaingoarekin, bezperan gertatutakoa baloratzeko. Eta inoiz ez dut hainbeste boletin ofizial irakurri.

Onerako ondoriorikatera duzu bizi dugun guzti honetatik?

Gizarteak bikain erantzun du orokorrean eta erakutsitako elkartasun maila azpimarratzekoa da. Betiko salbuespenak kenduta, gehiengo handi batek eredugarri jokatu du. Birusa ez da ikusten, baina ez da kondai-

“Normaltasunera itzuliko gara, baina ez da ezagutzen genuena izango”

ra; horretaz jendea jabetu da. Egia da emandako aginduak betetzeko orduan interpretazioa ez dela erraza izan askotan; adibidez, 1. fasean sartzerakoan jendeak askoz hobeto erantzun zuen bigarren egunean lehenengoan baino. Beharrezkotzat jo behar dugu solidarioak izatea, batez ere ekonomikoki kaltetu asko izango direlako... kasu askotan legeak horrela aginduta itxi behar izan dutenean.

Neurri bereziak hartu behar dituzue ondorioei aurre egiteko?

Aste honetan aurkeztuko ditugu, hain zuzen, Udaleko alderdiek adostutako neurri batzuk. Aurretik merkataritza, ostalaritza, industria eta ekintza sozial (sindikatuak, Lanbide, Gurutze Gorria...) arloetako ordezkari-kin egindako bileretatik ondorioztatutako beharrei erantzun nahi diete neurri horiek, epe laburrerako proposamenekin... estrategikoagoak geroago eto-

rriko dira. Zuzeneko dirulaguntzak daude tartean dendari eta tabernarientzat, industria arloan lanpostuei eusteko asmo sendoa... Guztira 2.700.000 euroko dirulaguntza eskainiko da, kopuru guzti hori inbertitzeko gutxienez.

Ondo sartu gara 1. fasean? Prestatuta gaude?

Datu estatistikoek hori diote behintzat. 1 fasean egon edo, batzuk dioten moduan, 0'5-ean egon, hartu dituzten erabakiei zintzo jarraitu behar diegula uste dut, ulertu eta aplikatuz. Ez diogu urratsaren tamainari hainbeste begiratu behar, gehiago balio du pausua ondo emateak. Bataila txikiak irabaziz joan behar gara.

Udaltzaingoa ia 350 salaketa egin ditu orain arte. Zer esaten dizu datuak?

Eibarren birusak kutsatutakoak baino gehiago dira. Udaltzaingoaren funtzioa pedagogikoa izan da batez ere, agindutakoa betetzen ez zuten kolektiboak identifikatzera mugatu dena. Horrelakoak Hiritarren Seguratasunerako Legearen bidez tramitatuko dira. Kasu askotan gazteenek hobeto erantzun dute helduek baino.

Zein da gaur egungo egoera herriko zahar-egoitzetan?

Hasieran ziurgabetasuna nagusitu zen, eta guztion artean ahalegindu ginen arazoari erantzuten. San Andres egoitzatik materiala eskatu zuten, hornikuntza-arazoak bagenituen... Eibar FT-k berak ere lagunduzien bai Eibarkoei bai Ermuko erresidentziari. Azken aldian ez digute ezer eskatu.

Neurriak jakinarazteko komunikazio politikan ez dute jendea gehiegi nahastu?

Gauzak ondo egiteko ahalegina badago; lan zaila da, askotan neurriak berehala hartu behar direlako. Bozerramaileak komunikabideen aurrean dira ia egunero, baina zalantzak ere neurri berean sortzen dira. Komunikazio ahal den ulertarazena lortu behar dugu, jendeak zer egin jakin dezan. Saiatu behintzat.

Zelan sumatzen duzu etorkizuna? Nondik nora joko dugu?

Normaltasunera itzuliko gara, baina ez da gaur egungoa izango. Tunel batean sartu gara eta irteerako paisaia ez da izango sarrerakoa. Gure harremanak

“Ohiko San Juanei agur esan eta ikusiko dugu zein aktibitate antolatu”



“2.700.000 euroko dirulaguntza eskainiko dugu kaltetutakoei laguntzeko”

aldatuko direlakoan nago, gure geneetan daramaguna baztertu beharko dugu akaso. Ez naiz gauza zer datorkigun ondo zehazteko. Maskarak beharrezkoak izango dira seguruenik txertoa iritsi arte, birusa gurekin bizitzera etorri delako. Birusa kontrolatu beharko dugu, kolapsorik ez sortzeko.

Aurtengoak zelako Sanjuanak izango dira?

Eudel, Diputazioak eta Eusko Jaurjaritza, hiruren artean erabakiko dute euskal uda kulturala zelakoa izango den, eta horri jarraituko diogu guk. Ohiko

Sanjuanei agur esan beharko diegu eta ikusi zein motatako aktibitateak egin ditzakegun. Auzoetako jai guztiak bertan behera geratu direnez, ez litzateke txarto egongo ekitaldi batzuk auzoetara eramatea... Streaming bidezko kalejira akaso, Untzagan zeozer 400 lagunendako-edo, distantzia gordez... Illoak zehazten dituztenean Kultura batzordea lanean hasiko da.

Kanpoko igerilekua zabalduko da? Merkadilloa martxan ipiniko?

Igerilekua zabaltzeko boronda-

tea badaukagu, baina aurretik jakin behar dugu zein baldintza bete behar ditugun instalazioa zabaltzeko. 1.100 laguneko aforoa du, esaten badigute herena bakarrik sartu daitekeela bete beharko dugu, aldagelekin zelan jokatu... guzti hori Eudeletik etorriko da. Merkadilloari dagokionez, erropena zabaltzea luzeago joko du. Janariena, Urkizukoa, datorren astean abiatu daiteke agian, baina %25era mugatzen bada... 12 postu daude, hiru ipintzekotan zozketa-edo egin beharko.

Hauteskuendean aurrean, zein da zure postura?

Uste dut komeni dela ahalik eta denbora gutxien egotea gobernu barik. Parlamentu berri batek lagunduko luke krisitik hobeto irtetzeko orduan. Aurrekontu berria onartzeko orduan hautestontziak beste legitimotasun bat eskaintzen dizute. Baina beti ere osasun-berme guztiak ziurtatuta. Hasteko, gainera, berriro osatu beharko dira hauteskunde-mahaiak, zentsoa ere aldatu delako.

Azkenik, noiz jasoko ditugu maskarak eskuratzeko bidali behar dituzuen txartel elektronikoak?

Aste honetako egunean eta barixakuan banatuko dira buzoietan, etxeetara bidaliko dugun gutunarekin batera. Egun horietan kokatuko dira baita vending makinak herriko bost puntutan: Azitain eta Kantoi gasolindegietan, Calbeton kaleko eta Berdintasunaren pasealekuko vending guneetan eta Orbea kiroldegian.

ZABALIK asteleheneretik larunbatara
08:00etatik 14:00etara
-IGANDEAN ITXITA-

Urkizu, 24
943 358138
660 460295

Gastro-Bar
ORBELA
JANARIA ETA EDARIAK ERAMATEKO

ACITAIN, S. A.

ZERBITZUGUNEA
www.acitain.com

AVIA

- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- Gasoleoen zuzeneko banaketa
- Garbiketa automatikoa eta presioarekin

Tel. 943 12 16 62 Tel/Faxa. 943 12 18 62 acitain@gmail.com

Tabernen egoera, edalontzia erdi hutsik ala erdi beteta?

Ia bi hilabete itxita egon ondoren, terraza-zerbitzua eskaintzen duten Eibarko taberneak ateak zabaltzeko aukera izan zuten astelehenean. Gutxi izan ziren mahaiak eta aulkiak taberna kanpoan jarri zituztenak, baina herritarrek egarri zirela ikusi zen. Taberna gehienek itxita jarraitzen dute eta kontuak egiten dihardute pertsiana atzean. Ateak berriz ireki? Ez? Zein baldintzatan? Osasun- eta segurtasun-neurriak bete daitezke? Gastuak berdintzeko beste irabazi daiteke? Galdera ugari eta ziurtasun gutxi. Txikiteoa, momentuz, mahairik mahai egin beharko dugu.

Joan den asteko zapatuan, taberneak terrazak jartzeko baimena eduki baino bi egun lehenago, taberna itxita lagatzea pentsatzen zuen Baisi tabernako Cristinak. “Kontuak egin genituen eta ikusi genuen ez zitzaigula zabaltzea komeni”. Baina azken orduan tabernaren jabearekin akordio batera iritsi zen, berriz kontuak egin eta astelehenean zabaldu egin zuen.

Lau mahai jarri ditu terrazan eta mahai bakoitzean lau aulki daude, segurtasun-neurriak mantendu daitezke. Udaltzainak zorrotz ari dira neurriak betetzen direla ziurtatzen eta udaleko arkitektoak goitik behera begiratu du Baisin prestatu duten egitura. “Herriko ostalaritza-establezimenduen terrazak egiaztatu dira, eta ikusi da neurri handi batean araudia betetzen dutela”, esan du Udaltzaingoak prentsa-ohar batean. Hala ere, taberna batzuei administrazio-txostenak zabaldu dizkiete lehen egunetan.

Gehienez ordu erdiz egon daiteke Baisiko terrazan. “Jendea terrazan eseri beharko da zerbitzua jasotzeko, bestela ezingo diogu zerbitzatu”. Gel hidroalkoholikoa eskura dago eta bezeroak mahaitik altxatzen diren bakoitzean mahaia garbitu behar da. Ez da betiko egoera eta denak ohitu behar gara, tabernariak eta bezeroak.



Taberna batzuei administrazio-txostenak ezarri dizkiete terrazak jarri dituzten lehen egunetan

Lehenengo egunak arraroak eta oso neketsuak izan dira Baisikoentzat. Hala ere, atsekabeku orde, aurrera egiteko gogoz daude. Momentuz ez dituzte euren tortilla famatuak egiten, “sukaldea itxita dugu”, baina martxan jarri dira euren bezeroengandik hurbil egoteko behintzat.

Cristinak senarrarekin egiten du lan, eta ABEE eskatu dute lankide dituzten zerbitzariarentzat eta sukaldariarentzat. Orain lan gehiago egitea tokatzen zaie eta ordutegia moldatu dute. Inoiz ez bizitako egoera ari dira bizitzen eta poliki-poliki joango dira erabakiak hartzen.

Taberna irekitzeak gastuak dakartza eta, momentuz, irabazi gutxi. Laguntzak iritsi zain, irribarretsu jasoko dituzte bezeroak.

Zabaltzeko prestatzen

Ez Dok tabernak ere terraza jartzeko baimena zuen, baina pixka bat gehiago itxarotea nahi izan dute. “Ezarritako arauak nahiko korapilatsuak dira eta nahiago izan dugu inguruko terrazetan zer gertatzen den ikustea, ea tabernariak eta bezeroek nola erantzuten duten, eta horren arabera ekin”, esan digu Beinatek. “Gauzak ondo egin nahi ditugu”. Dena dela, datorren asterako martxa batean egongo dira eta, eguraldia lagun, asteburuan bertan ireki ditzakete ateak.

Egoera berrirako prestatzen hasi dira, “tabernaren funtzionamendua aldatu egingo delako sasoi baterako gutxienez”. Negozioa birplanteatu beharko dutela uste dute, egoerak hala eskatuta. “Bezeroen kontsumitzeko modua aldatu egingo da eta egokitu egin beharko gara, baina momentuz ez dakigu zer aurkituko dugun. Esperientziak emango dizkigu erantzunak”.

Garagardo eskaintza zabala du Ez Dokek eta hori da bere ikurretako bat. Alarma-egoeran taberna itxita egon den arren, bezero askorekin harremana izaten jarraitu dute eta garagardo-dastaketak egin dituzte sare sozialen bitartez. “Gainera



Astelehen arratsaldean bete egin ziren herrian jarri zituzten terraza urriak.



Ez Dok tabernak laster irekiko ditu atekak.

hurbileko bezeroei hozkailuan genituen garagardoak eskaini genizkien”. Horrekin zerbait irabazi dute, baina galerak izan dituzte itxialdian.

Garagardoaren, zuzeneko musikaren eta tabernan sortzen den lagun-giro bereziaren inguruan komunitate sendoa sortu du Ez Dokek, eta gertuko babesa berebizikoa izango da aurrera egiteko. “Hasieran garagardoak atzeritik ekartzen genituen, baina azkenaldian gehienak Euskal Herrikoak dira. Oso gertuko produktuak saltzen ari ginen egoera honen

aurretik ere, eta orain gehiago. Inguruko ekoizle, sortzaile eta abarrekin egingo dugulan, gertuko artean elkarri lagundu behar diogulako”.

Hanburgesak etxez etxe

Hirurok tabernako Diegok hanburgesa-negozioa sortzeko asmoa zuen aspalditik eta itxialdiak eman dio ametsa egi bihurtzeko behar zuen txinparta. Joan den asteburuan hasi zen etxez etxe janaria banatzeko zerbitzua eskaintzen eta zorarena izan zen. “Dei pila bat jaso genituen eta ezin izan genuen

eskaera guztia asetu”, esan digu pozik. “Arrakasta handia izan dute hanburgesek”.

Aro berria hasi da Hirurokekoentzat, irudi berriarekin eta, terraza jartzeko baimena eduki arren, etxez etxeko zerbitzuarekin egin dute aurrera momentuz. “Osasun- eta segurtasun-neurriak mantentzeko zailtasunak ikusita, ez dugu arazorik nahi. Taberna ganoraz zabalatzeko baldintzak ematen direnean zabalduko dugu berriz”.

Maskarekin egiten dute lan sukalde barruan, “babesera-ko pantailak lurrundu egiten

dira”, eta oso ondo moldatzen dira. Joan den asteburuan etxez etxe ibili ziren janaria banatzen, baina asteburu honetan janaria tabernan jasotzeko aukera izango dute bezeroek.

Diego pozik dago eskaintza berriak izan duen erantzunarekin eta baikor begiratzen dio etorkizunari. “Argi nuen ez nintzela etxean ezer egin gabe geldituko. Askok dira bere negozioei beste buelta bat eman dioten sukaldariak eta nik ere azkenera arte ekingean ibili nahi nuen”.

Egin dezagun topa Eibarko tabernariengatik.

LAN ESKAINTZA

Diseinu eta produktu garapenerako ingeniaria behar da

Heziketa

Ingeniaritza Mekanikoa / Diseinu Industrialia

Beharrezko ezaupideak

Fabrikazio Teknologia
CAD Diseinuko Teknologia
Geometria eta Ingeniaritza Kalkuluak
Hizkuntzak: Euskera eta Ingelesa

Eskaintza

- Lanabes-makina sektoreko enpresa garrantzitsuan sartzea
- Edukin teknologikodun eta etengabeko hobekuntza eskatzen duen enpresan girotutako garapen profesionala

Lan-deskribapena

Hautagaia Bulego Teknikoan integratuko da, eta Multzo eta Makinen diseinuaz arduratuko da.

Egin beharreko zereginak hauek dira:

- Baldintza teknikoak aztertzea
- Fabrikazio planoak 2D-en garatzea
- Azpimultzoak eta makinak 3D-en garatzea

Egokitzapen epea igaro ondoren, hautagaia merkatuaren eskaerei erantzuteko gai izan behar da eta produktu berrien teknologia eta garapenean lagunduko du.

Komenigarria da hautagaia Eibar edo Elgoibar inguruan bizitzea.

San Lorenzo, 4 -Elgoibar- 943 74 33 00 www.doimak.es

CV bidaltzeko: webmaster@doimak.es

<<< BEA ETA MARIA • Klaus >>>

“Egoera honek salmentarako bide berriak ireki ditu”

Estaziño kaleko Klaus dendako Bea eta Mariak gogotsu ekin diote sasoi berriari. Hilabete eta erdiz denda itxi behar izan zuten, baina etxetik lanean jarraitu dute eta indartsu zabaldu dute denda berriz. Bezeroei eskainitako maitasuna bueltan jaso dute egun hauetan.

Denda berriz ireki duzue. Nola ari zarete moldatzen?

Jendeak hitzordua eskatu behar du dendan sartzeko, gehienez lau pertsona sartu daitezke aldi berean, maskarak eta gel hidroalkoholikoa jarri ditugu sarreran... Jendeak etortzeko gogo zuen eta dendak zabalik egoteak poztasuna eman diela esan digute batzuek. Bonboiak ere ekarri dizkigute!

Dendan sartzeko hitzordua eskatu beharrak zaildu egiten du zuen jarduna?

Negozioaren araberakoa da hori. Bat-bateko erosketaren esperientzia galdu egiten da, baina interesgarria iruditzen zaigu hitzordu bitartez erosteko modu hori. Adibidez, erosteko gogo duen pertsona bat ezin bada denda zabalik dagoen ordutegian etorri, beste ordu batean etortzea proposatu dezake eta, ahal badugu, orduan atendituko dugu. Dena dela, denda gehienek aldatu egin dugu ordutegia. Denbora asko behar dugu osasun-neurriak hartzeko eta denda garbitzeko, eta arra-

tsaldeko 19:00etan ixten dugu momentuz.

Nola funtzionatzen du hitzordua bitarteko erosketak?

Lehenik, erosleek hitzordua eskatu behar dute eta hori zehazten dugu. Gero, ez dugu denbora-mugarik jartzen. Bi saltzaile gara eta ondo moldatzen gara horrela. Eroslea joaten denean, ukitu duena ondo garbitzen dugu. Dena dela, hitzordu bitartez lan egitera ohituta gaude, dendan gauzak saltzeaz gain, proiektu ezberdinetan egiten dugulako lan. Egoera honek dendan ordutegiak europartzeko balio dezake. Bestela, saltzaileak oso berandu joaten gara etxera eta batzuetan zaila izaten da kontziliazioa.

Aldaketa gehiago igarri dituzue lan egiteko moduan?

20:00etako paseoari esker herriko beste gune batean bizi den jendeak gure denda ezagutu du eta baten batek zerbait erosi du dagoeneko. Enkargua egin zingun eta erositakoa jasotzera etorri zen. Bestetik, bideo-deien



bitartez bezeroekin harremanetan gaude, eta horrela ikusten eta erosten dituzte produktuak. Egoera honek salmentarako bide berriak ireki ditu.

Nola moldatu zarete denda itxita egon den bitartean?

Telelana egin dugu eta martxan

ditugun proiektuetan lan egiten duten gremio guztiekin harremanetan egon gara, posible izan denean obrak berriz has-teko. Lan asko aurreratu dugu. Bestetik, sare sozialetan aktibo egon gara eta, denda itxita egon arren, jendeak produktuak erreserbatu ditu.



ezagutzen dituzu
gure sare sozialak?



etakitto.eus

ATE IREKIAK ONLINE

MAIATZAK 23

Eman izena gure
Web orrian!
www.uni.eus

10:00



JARDUERA
FISIKOAK



EGOKITZAPEN FISIKOA
GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA
ETA ANIMAZIOA

11:00



MERKATARITZA



MERKATARITZA JARDUERAK
NAZIOARTEKO MERKATARITZA

12:00



ADMINISTRAZIOA



ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
ESKAITZA PARTZIALA ARRATSALDEZ

13:00



INFORMATIKA



SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK
ETA SAREAK
PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN
GARAPENA
SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN
ADMINISTRAZIOA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAKO
ZIBERSEGURTASUNA

DIXI MAILAKO TEKNIKARIA
 GOI MAILAKO TEKNIKARIA
 ESPEDIALIZAZIOA

*
IKASTETXE
PUBLIKO
DOAKOA

Otsola Hiribidea, 29,
20600 Elbar, Gipuzkoa
943 20 84 44
idaarkaritze@uni.eus
www.uni.eus | @uni.eus



FISIOTERAPIA


ZENTRUA

Ane Mendia

970 kol. zkia.

Arragueta, 20 - beheka

943 530642



ane_mendia@hotmail.com



INDIBA TERAPIAK **ARTIKULAZIO**
TENPOROMANDIBULARREKO ARAZOAK
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
K-STRETCH KLASAEK BAKARKA
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA
OROKORREAN ERGONOMIA HOBETZEKO
KLASE PERTSONALIZATUAK

Gure bizimoduari gero arte esan genionetik

Honezkero bi hilabete pasatu dira gure bizimodua goitik behera aldatu zenetik. Egun batetik bestera, aurreikusita geneukan guztia, gure programa guztiak burutzeko beste modu bat aurkitu behar izan genuen. Atzera begira, bi hilabete hauek gogorak izan direla ezin dugu ukatu, zenbait momentutan etsituta sentitu garela ere bai, eta noraezean galtzeko beldurra sentitu dugula, baina, era berean, oso hilabete aberasgarriak izan dira, asko ikasi dugu eta, urruntasunetik izan bada ere, herritarren gertutasuna sentitu dugu. “Lapurtu” diguten bizimodua berreskuratzeko irrikitan gaude, baina, bien bitartean, ez dugu haria eten. Gure jarduna beste modu batean egin dugu eta euskarak bete ditu telefonoz, bideo-deiez, e-mailez, sare sozialen bidez... eman ditugun ehundaka orduak. Ez gara itzuli, ez baikara joan. Ez dugu berreskuratu, ez baitugu galdu.

“Lapurtu diguten bizimodura bueltatzeko irrikitan gaude”



Saso berrietan, bide berriak

Horixe egin behar izan du ...eta kitto! Euskara Elkarteak azkeneko asteotan, egoera berrira egokitu eta bide berriak bilatu; lehen eskaintzen zituenak eskaintzen jarraitu du, baina egoerak berak jartzen dizkigun mugak aintzat harturik, jakina. Hori da berbalagunen kasua, esaterako.

Berbetan mintzapraktika-ko programaren oinarria da aurrez aurre elkartzea. Euskera praktikatzeko beharra dutenak edo euskeraz berba egiteko ohiturarik ez dutenak euskeraz ondo hitz egiten dutenekin elkartu ohi dira astean behin, normalean taberna batean, giro informal eta atseginen.

Aurrez aurre elkartu ezin zirela ikusita, ...eta kitto! Euskara Elkarteak online elkartzeko aukera eskaini zien hasiera-hasieratik taldeei, eta erantzuna ezin hobea izan da. bederatzita talde egin dute bat proposamen berriarekin eta astero elkartzeko dira eskura ditugun eta hain modan jarri diren aplikazio informatikoei esker. Konfinamenduaren aurretik elkartu ohi ziren asteko egunari eta ordutegiari eutsi diete, eta astero elkartzeko dira ordubetez.

Baina Berbetan programan izena emanda dutenei ez ezik, herritar orori ere eman dio elkarteak mintzapraktika online egiteko aukera. 3-4 lagun berri eman dute izena, eta eman daiteke oraindik ere, mezu bat idatzita hona: elkartea@eta-kitto.eus. Euskera praktika-

tzeko programan parte hartzea doakoa da.

Lehiaketan lehia bizia

Ikasturtea berbalagunei eskaintako joko edo lehiaketa berri batekin hasi zuen ...eta kitto!-k. Hainbat urtez “Tribial lehiaketa” antolatu izan du berbalagun-taldeen artean eta gogotsu parte hartu izan dute beti. Ikasturte amaieran, puntu gehien lortzen zuen taldeari sari bat ematen zitzaion, berbalagun guztiak elkartzeko zituen ikasturte amaierako ekitaldian.

Baina zerbait desberdina eskaintzeko gogoz zebilen aspaldian elkarteak, eta tribiala

beharrean bestelako joko bat eskaintzen ari zaie irailaz gerortik. Eibarko auzo, kale edo pertsonaien argazkiak desitxuratu jasotzen dituzte telefonoz eta zeintzuk diren asmatu behar izaten dituzte. Lehia bizia izaten da berbalagunen artean.

Guraso berbalagunak ere online

Gurasoak Berbetan egitasmo-ko kideek ere etxetik dihardute ...eta kitto! Euskara Elkarteak eskaintzen dizkien jardueretan parte hartzen. Lehenengo astean etxean egiten zihardutena kontatzea eta erakustea eskatu genien, eta era guztietako bideoak bidali zizkiguten: sukal-



Pisten bitartez Eibarko auzo, kale edo pertsonaien izenak asmatu behar dira.



Irakurri, gimnasia, esperimentuak... denetarik egiten dihardute umeeek etxean ez aspertzeko.



Martitzenetan izaten da bingo-partida, eta saririk ez da falta.

dean errezetak egiten, etxeko pasilloan jolasten, komuneko paperarekin gimnasia egiten, familien arteko pintxo-lehiaketak...

Bingoa astean behin

Ez da gauza erraza inorentzat etxean horrenbeste denbora egotea, irten ezinda, eta are gehiago etxeko txikientzat. Orduak luze ez joateko entretenitu egin behar dira, eta ideiak ere askotan agortu egiten zaizkigu. Egoera ikusita, familiei egiten zihardutena erakusteko eskatzeaz gain, ...eta kitto!-k etxean ahalik eta gutxien aspertzeko hainbat jarduera proposatzen dihardu, horien artean Bingoa. Astean behin jokatzeko dute guruso berbalagunek eta euren familiek eta arrakasta izaten ari da. Aste honetan egin dute laugarren partida. Saririk ere ez da falta, lerroa osatzen dutenentzat eta, jakina, Bingo egiten dutenentzat: liburuak, ipuinak, ...eta kitto!-ren kamisetak... Egoerak hobera egiten duenean pasatuko

dira irabazleak ...eta kitto!-ren egoitzaetik euren sariak jasotzera.

Illunabarrian ikastaro birtualak

Illunabarrian egitasmoak ere aldaketak izan ditu antolaketan. ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan antolatu ohi dira ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak..., baina egoerak orain ez du horretarako aukerarik lagatzen. Hor ere elkarteak ez du jarduna eten nahi izan, eta aste honetan bertan antolatu du lehenengo ikastaro birtuala: "Elikadura planifikatu konfinamendu ostean". Mireia Alberdi ezaguna dugu, hainbat alditan izan baita elkartearen janari osasungarrien inguruan berba egiten, eta joan den martitzenean dozena bat lagun elkartzu zituen online. Nutrizionistak hainbat gomendio eman zizkien konfinamendutik irtetzen ari garen honetan elikadura planifikatzeko, eta udara begira, "miraririk" ez baina zenbait ohitura aldatzeko hainbat proposamen ere eman zituen adituak.

IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

2020ko Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketa urtea bezain berezia izan da. Urtarriletik aurrera Eibarko LH eta DBHko ikasleek ipuinak eta gutunak idazten hasi ziren, eta martxoaren 4an, epea amaitu zenean, ...eta kitto!-ra ekarri zituzten, ohikoa den bezala, gero epaimahaikideen artean banatzeko. Baina banaketa-prozesu horren baitan harrapatu gintuen alarma-egoerak eta ebazpena inoiz baino korapilatsuagoa izan da. Epaimahaikideek ipuinak etxean zituzten eta biltzeko aukerarik ez zegoen; beraz, teknologia berriak erabiliz egin behar izan dugu aurtengo ebazpena. Antolatzaileek adierazi dutenez, ikasleek sekulako



Irabazleak. Goian ezkerretik hasita: Miren (Maiderrastiren ahizpa), Enara Gabiola eta Nahia Jauregi. Behean: Eider Oyarzabal eta Eneko Crespo.

lan egin dute, mila lan inguru jaso dituzte aurtengo ere, eta nola lagako zituzten, bada, saririk gabe? Irabazleek sari sorta ederrak jasoko dituzte (eskola-materiala, liburuak, liburu elektronikoak...). Jarrai dezatela orain bezain

ondo eta gogotsu euskaraz irakurtzen eta idazten! Aurtengo irabazleak ondorengoak izan dira: LH 1-2 mailetakoa irabazlea La Salle Ikastetxeko **Eneko Crespo** izan da; LH 3-4 mailetakoa, ikastetxe bereko **Eider Oyarzabal**; eta J.A.

Mogel Ikastolako **Nahia Jauregi** LH 5-6 mailetakoa. DBHko irabazleak Eibar BHko ikasleak izan dira, 1-2 mailetakoa **Enara Gabiola** eta 3-4 mailetakoa **Maiderrasti**. Sari-banaketa ere oso desberdina izango da aurtengoa; izan ere, Unibertsitate Laboraleko antzokian egitea zegoen aurreikusita, urtero egiten den bezala, baina egoera ikusita ezinezkoa zenez, sari-banaketa ekitaldi birtuala egin dute. Tor magoak aginduz Eibarrera etorriko zela eta, fisikoki ez bada izango ere, bertan egongo da, eta aho zabalik utziko digu bere trikimailuekin.

Gaurtik aurrera egongo da ikusgai ...eta kitto! Euskara Elkartearen youtubeko kanalean aurtengo Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketako sari-banaketa ekitaldia.



Bideokonferentzia bidezko formakuntza eskaintzen hasi dira KZ gunean, talde txikietan

KZgunean formakuntza-modulitate berri bat ipini dute martxan: zuzeneko formakuntza, bideo-deien bidez, talde txikietan. Bideokonferentzia bidezko bi orduko bi saio izango dira, 4-6 lagun bitarteko taldean. Interesa dutenek www.kzgunea.eus helbidean aurkituko duten inprimakia bete beharko dute. Bertan, informazio pertsonala

eta harremanetarako informazioa emateaz gain, zein ikastaro egin nahi duten, nahiago duten ordutegia eta lehentasunezko hizkuntza zehaztu beharko dituzte. Ikastaroa noiz hasiko den posta elektronikoz jakinaraziko dute. Zalantzak argitzeko 945 016 100 telefonora deitu edo kzc@kzgunea.net helbidera idatzi daiteke.



Museoen Nazioarteko Eguna etxetik ospatzeko baliabideak eskuragarri daude interneten

Maiatzaren 18a Museoen Nazioarteko Eguna izendatu zuen Museoen Nazioarteko Biltzar Orokorrak 1977an eta, horren harira, urtero egiten dira gai baten inguruko ekitaldi bereziak mundu osoko museoetan. Aurtengo gaia *Berdintasunaren aldeko museoak: aniztasuna eta inklusioa* da eta etxean

ospatzeko proposamena egin dute Eibarko Armagintzaren Museotik: "Museoan bisita birtuala egin daiteke (<https://armia-eibar.eus/tour/>), azalpenak audiogidei esker jarraitu... Horrez gain, artxibo digitalak dokumentu grafiko ugari eskaintzen ditu: katalogoak, publizitatea, kartelak...".



Marrazki lehiaketa umeentzat

Mapfrek Eibarren dituen bi bulegoetan (Sostoa eta San Juan kaleetan) umeentzat marrazki lehiaketa antolatu dute. Gaia librea da eta hiru kategoria bereiziko dituzte: sei urtera arte, 6-10 urte bitartekoak eta 10-14 urte bitartekoak. Entregatzen diren marrazki guztiei oparia emango diete, parte hartzeagatik eta, horrez gain, kategoria bakoitzeko marrazki politenarentzat sari bereziagoa egongo da. Antolatzaileren berbetan, "jasotako marrazki guztiekin erakusketa egingo dugu, horregatik nahi dugu eskura ematea". Erakusketa noiz eta non egingo duten, bestalde, zehazteke dago oraindik, "bizi dugun egoerak markatuko digu hori".

Etxealditik Euskaraldira bizipenak

Euskaraldiaren eskutik apirilaren 20tik maiatzaren 3ra bitartean egindako #EtxealditikEuskaraldira ekimenarekin, "COVID-19 koronabirusak eragindako nahitaezko etxealdian hizkuntza ohiturak aldatu edo finkatzen jarraitu deza-kegula" erakutsi nahi izan dute. Horrekin batera, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den ariketa sozialaren lehen entrenamendua ere izan da. Bien bitartean, ekimenak iraun duen bitartean antolatzailerek sare sozialen bidez jaso dituzten bizipenen lagin batekin bideoa prestatu dute, hori ikusi eta bizi izandakoa gogoratzeko. Bideoa ikusteko euskaraldia.eus helbidera jo.



Musika Eskolako bideoa ikusgai

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleak, beste guztiak bezala, klase barik geratu ziren koronabirusa agertzean, baina etxean egon diren bitartean ondo baino hobeto aprobetxatu dute ikasitakoa praktikan ipintzeko. Xabi Aburruzagaren musikarekin, ikasle eta irakasleek egin duten bideoa YouTubean eta Facebooken ikus daiteke.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Victorino Toledano Lorente.** 71 urte. 2020-5-7.
- **Aurelia Ferro Rodriguez.** 97 urte. 2020-5-7.
- **M^a Esther Atxa Gurrutxaga.** 82 urte. 2020-5-10.
- **Paco Sanchez Garcia.** 60 urte. 2020-5-11.
- **Andres Rodriguez Gomez.** 85 urte. 2020-5-12.

Jaiotakoak

- **Uxue Alkorta Magunazelaia.** 2020-3-3.
- **Izar Urkia Gonzalez.** 2020-3-4.
- **Andres Ariznabarreta Mtnez-Alcocer.** 2020-3-5.
- **Thiago Cordoba Rueda.** 2020-3-9.
- **Nile Gil Gonzalez.** 2020-3-11.
- **Niko Retegi Bustinduy.** 2020-3-11.
- **Riham Bonfeljat.** 2020-3-12.
- **Adam Rbiza.** 2020-3-25.
- **Maren Perez Camara.** 2020-3-28.
- **Daniela Coello Carrera.** 2020-4-1.
- **Ion Gutierrez Cagigas.** 2020-4-2.
- **Aisosa Osagie.** 2020-4-4.
- **June Sarasketa Crespo.** 2020-4-4.
- **Matthew Tony Monday.** 2020-4-4.
- **Irati Dalama Hernandez.** 2020-4-6.
- **Mohamed Leblane.** 2020-4-6.
- **Mohamed Afinsion.** 2020-4-10.
- **Ibrahim Jebari Ben Hamman.** 2020-4-13.
- **Ander Gabilondo Lekunberri.** 2020-4-14.
- **Ian Richard Agirreoa.** 2020-4-18.
- **Rania El Jazzar.** 2020-4-21.
- **Martina Manzano Fernandez.** 2020-4-28.
- **Alazne Carracedo Pineda.** 2020-4-28.
- **Adham Tahri.** 2020-4-29.

Farmaziak

BARIXAKUA 15

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

ZAPATUA 16

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

DOMEKA 17

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

ASTELEHENA 18

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

MARTITZENA 19

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

EGUAZTENA 20

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

EGUENA 21


EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

BARIXAKUA 22

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2020an,

Barandela (Ziriako Agirre, 4)



AITOR ERRASTI OLALDE

(2020ko maiatzaren 4an hil zen)

FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztiei eta jaso izan ditugun maitasun keinuengatik.

943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, **AITOR!**
Atzo 2 urte bete zenduaz-en-eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **NILE!** Gure etxeko printzesak 2 urte bete ditte gaur! Famelixa guztiaren eta, batez be, Lukaren partez.



Zorionak, **OIHENART,** ipuin kontalari aparta. Apirillaren 18xan 9 urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat aitaxo, amatxo eta Aioraren partez.



Zorionak, **JANIRE,** hillaren 19xan 10 urte beteko dozuz-eta. Munduko polittenari, gurasuen eta Limon zure akurixaren partez.



Zorionak, **UNAX,** hillaren 12xan 10 urte bete zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Oihanaren partez.



Zorionak, **MIKEL,** hillaren 17xan 3 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **EDER,** etxeko txikixenak bixar 3 urte beteko ditte-eta. Musu haundi bat Ireni, aitta eta amaren partez.



Zorionak, **ANDER,** apirillaren 27xan 3 urte bete zenduaz-en-eta. Musu potolua etxekuen partez.



Zorionak, **ANDER!** hillaren 11n 5 urte bete zenduaz-en-eta! Amama, aitxitxa, ama, aitta eta, batez be, Danelen partez.



Zorionak, **LUCIA,** neska haundi! 3 urte bete zenduaz-en-eta!!! Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zoriona, **UXUE** Arakistain Ormaetxea, 3 urte egitterakuan! Etxeko bazter guztiak betetzen dozuzelako zure algara eta oihuekin.



Zorionak, **CAROL,** gure zoragarriak 5 urte bete zittuan-eta hillaren 6xan. Zu besarkatzeko gogoz duguaz-en aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, **MAREN** (hillaren 3an 3 urte) eta **IBAI** (hillaren 12xan 10 urte). Musu haundi bana famelixaren partez.



Zorionak, **MARTIN** (martxuaren 23an 3 urte) eta amama **MARIJE** (domekan beteko dozuz). Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JULEN**, domekan 3 urte beteko dozuz-eta. Patxo potolua **MALEN** eta zure famelixa guztiaren partez.

ARRATE URZURIAGA BOLLAR

1. urteurrena: 2019-05-14



Zure irribarrea eta zure alaitasuna

BETI izango ditugu GOGOAN.

ZURE FAMILIA



Denborapasak

	9	5		8				
								3
4						1	2	9
			8		9	3		1
9		4		1		6		5
1		6	3		5			
7	4	9						6
6								
				2		7	3	

		6			2		4	
			4	9				
2		1			4			7
	2						9	
			7		3			
		7						8
1				3		6		5
					1	3		
		5		8				9

soluzioa

P	C	7	9	2	6	1	5	8
8	6	5	1	2	9	4	3	7
0	1	2	3	4	5	6	7	8
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
1	9	0	6	9	0	2	2	0
0	2	1	0	5	4	0	0	9
0	5	0	7	6	0	2	1	2
1	9	7	0	1	5	6	0	0

SUDOKUAK

soluzioa

P	C	7	9	2	6	1	5	8
8	6	5	1	2	9	4	3	7
0	1	2	3	4	5	6	7	8
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
1	9	0	6	9	0	2	2	0
0	2	1	0	5	4	0	0	9
0	5	0	7	6	0	2	1	2
1	9	7	0	1	5	6	0	0

LABIRINTOA



KOLOREZTATU



Fp
IMH LABORAN HEZIKETA
 BAZTEKETA INTEGRATUA
 CENTRO INTEGRADO DE
 FORMACION PROFESIONAL

**HEZIKETA ZIKLO
 INDUSTRIALAK**

Informazio saioa: maiatzak 21
 18:00etan | on-line
Gorde tokia: 943 74 82 65
 zikloak@imh.eus

www.imh.eus

IMH INGENIARITZA DUALAREN
 UNIBERTSITATE ERKOLA
 ESCUELA UNIVERSITARIA
 DE INGENIERIA DUAL

**INGENIARITZA DUALAREN
 UNIBERTSITATE GRADUA**

Informazio saioa: maiatzak 28
 17:00etan | on-line
Gorde tokia: 943 74 82 64
 ingeniaritza.ehu@imh.eus

www.imh.eus



**FATXADA ETA
 TEILATUEN
 BIRGAIKUNTZA**

BARNE-ERREFORMAK

**GREMIOEN
 KOORDINAZIOA**



ERAIEDER, S.L.

Matsaria, 10

Tf. 943 200 453

info@eraieder.es

www.eraieder.es

**NAZIOARTEKOTZA
AUKERAK_**
Europa/Mundurako
bekak
Zikloak ingelesez



**METODOLOGIA
BERRITZAILEAK_**
Erronketan oinarritutako
talde lana



**ESKAINTZA
ZABALA**
Erdi eta goi
mailako
zikloak,
espezializa-
zioak



ATE IREKI BIRTUALA

**Maiatzak 19
18:00**


**LAN
POLTSA**
Langile
teknikoen
beharra



**LAN AUKERA
ZABALA_**
Enpresa
harreman estua

**GERTUKO
HARREMANA
eta ORIENTAZIO
PROFESIONALA**



**info gehiago, gure webgune eta
sare sozialetan!**



www.armeriaeskola.eus



ArmeriaEskola^x

Isasi 36, EIBAR · 943 20 32 44 · www.armeriaeskola.eus